

## Ez gaude lasai

Antton Izagirre

**P**andemia honen erasoaren jopuntuan geundela ohartarazi gintuztenetik, ardura, kezka, ezinegona eta beldurra oso presente izan ditugu; baina guztiaren gainetik, gerta daitekeenaren gaineko ziurgabetasuna, gaixotasunaren bilakaerari buruzkoa, ekonomiaren hondoratzearen eta geuk eta ingurukoek jasango dugunaren baitakoa. Gizartearen moldaera eta nondik norakoa baldintzatzen ari den garapenari eragiten dion ezjakintasuna dago.

Zientzialarien izenean erabakiak hartu omen zituztenek hiru hilabeteko itxialdira behartu gintuzten, guk sinetsi eta zintzo bete genuen. Etxetik ateratzea baimenduta, maskara jartzera behartu gaituzte eta zintzo betetzen ari gara.

Baina ibilbide honetan ez gaude lasai. Harriduraz hartzen genuen eskuindarrek «*libertad, libertad*» oihukatuz itxialdia haustea. Ezagunak egin ziren Madrilen eskuindar aberaskumeen oldartzeak. Edo nazioartean, AEBetako edo Brasilgo buruzagi politikoez, esaterako, gaixotasuna gutxietsiz, gehiengoaren ordena zaltzan jartzen zutenean. Ez gaude lasai, askatasuna eskuindarren ikurtzat utzita.

Azken egun hauetan, gure pentsaeratik gertuago ditugun lagunengandik «*libertad, libertad*» oihukatuz Donostiako Bulebarrera gerturatu eta maskara erabiltzera behartzearen aurka egiteko gonbidapena jaso dugu, eta horrek ere ez gaitu lasaitu. Alderaketa horrek, jarrera horien aitzinean, norbere interes, balio

eta baldintza soziokulturalen alde diharduten eragile hiztunak daudela ikusarazi digu. Alde ala aurka jarri? Hor gure dilema. Horrelakoetan, babesgune edo jokaleku neutral modura, zientziari egiten diogu erreferentzia auziak askatu nahi ditugunean, maskararen erabileraren aldekoek eta aurkakoek ere bai.

Zientziaz ala magiaz ari zaizkigu? Zientziak, kausalitateak, ebidentziak eskatzen ditu; magiak, aldiz, gertaerak sinbolo bilakatzen ditu. Maskararen erabilerak birusaren erasoaren aurkako ebidentzia ala askatasunaren aurkako sinboloa den zailantzak sortu dizkigu. Askatasuna, indibiduala ala kolektiboa da? Bien arteko muga oso lausoa izanik, tartean jarrita, lasai egoteko motibo handirik ez dugu. •

## Badator hurrengoa

Miren Azkarate  
Badiola

**I**saías da Kubako aurtengo urakanen zerrenda inauguratu duen ekaitz tropikala. Indar gutxiarekin pasa da ekialdetik, ez du kalte pertsonalik eragin, nahiz eta bestelakoak bai. Beste irla batzuetan, aldiz, hildakoak ere eragin ditu.

Aitak egun batzuk lehenago *whatsapp* bat bidali zidan: «Urakana dabil Karibetik, Bahamasera doala dirudi, agian ekialdean nabaritutako dute haize eta itsasoko penetrazioa, baina badaezpada ere, *al loro*. Hasi da garaia, hemendik aurrera kontuz ibili behar dugu». Eta horrela azarora arte! Eta urtero berdin! Ohitzen ez naizen zerbait da, beti izaten dudana kezka bat. Kuba oso ondo prestatuta dago natura-

ren erakustaldi horietarako, baina gu hemendik ere erne ibiltzen gara.

Betidanik bizi izan garenez urakanekin, haien izenak nork jartzen ote dituen galdetu izan diot beti neure buruari. Garai batean egun horretako santuaren izena jartzen zitzairen eta ondoren, XIX. mendean, Clement Wragge izeneko meteorologoa pertsona izenak jartzen hasi zen, denak emakumeenak. Emakume ekintzaile eta feminista batek kanpaina bat abiarazi zuen hondamendi naturalak emakume izenekin soilik ez identifikatzeko eskatuz. Roxcy Bolton estatubatuarra izan zen, eta hari esker 1979an lehen aldiz urakan bati gizon izena jarri zitzaion: Bob.

Gaur egun, sei urterako zerrenda bat dago, urtero 21 izenez osatua, zazpigarren urtean berriro ere errepikatzen hasten den zerrenda. Ordena alfabetiko bati jarraitzen diote, eta urte horretan 21 urakan baino gehiago badaude, alfabeto grekoko izenak erabiltzen dira. Datu bitxi bat: kalte handia eragin duten urakanen izenak zerrendatik kendu egiten dira eta ez dira berriro erabiltzen.

Espero dezagun aurten ez izatea horrelakorik Karibe aldean, ez gizon izenarekin ez emakume izenarekin (ba ote generorik gabekorik?), ez Isaiasik, ez Hannarik. Baina hurrengoa jada bidean da. Hedabideek ez dute izenik ahoskatu momentuz... •